

Miguel Otegi
josulagunari
buruzko liburuxka
eman dute argitara ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2005-10-01 ▶ III. urtea ▶ 699. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Abesbatza Lehiaketa aurkeztu dute Gaztañagaren kartelarekin

37. EDIZIOA ▶ Urriaren 28an hasi, eta azaroaren 1ean bukatuko da; Usabal kirolgunean izango da lehia

ARAZORIK EZ ▶ Antolatzaileen esanetan, akustika aldetik Usabal «Leidor bezain egokia» izango da ▶ 2



Atzo goizean aurkeztu zuten, Donostian, 37. Abesbatza Lehiaketako kartela; Jon Gaztañaga tolosarrak egindakoa da. NOELIA LATABURU

IBARRA ▶

Alurr dantza taldeak Kultur Astea antolatu du

Urriaren 2tik 8ra izango da askotariko ekimenekin ▶ 6

IKAZTEGIETA ▶

Kutturrun industrialde berria prest da lanerako

15 modulu eraiki dira gunean; bi enpresa daude oraingoz ▶ 5

LEITZA ▶

Igantzira doa Saralegi aizkolaria ▶ 7

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Harpidedunen eta irakurleen boto andana jasota, II. HITZA Argazki Lehiaketak baditu bost irabazleak

Txema Zabala izan da garaile; Aintzane Arsuaga bigarren eta Juanjo Esnaola hirugarren; beste bi saritu daude ▶ 4



Pirinioetan ateratako argazkiarekin lortu du lehen saria. TXEMA ZABALA

37. ABESBATZEN LEHIAKETA ▶

Jon Gaztañagaren kartela, Abesbatzen Lehiaketa iragarritz

Urriaren 28tik azaroaren 1era burutuko da lehiaketa Usabal kiroldegi berrian, Leidor aretoko berritze lanak direla-eta



Atzo goizean abesbatzaren lehiaketako kartel aurkezpean, Eusko Jaurlaritzako egoitzan. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Hilabete eskas baino ez da geratzen 37. Abesbatza Lehiaketa abian jartzeko eta, dagoeneko, xehetasun guztiak prest dituzte Tolosa Ekimen Zentroko (CIT) arduradunak. Urtero legez, Tolosan ezinbesteko hitzordu bilakatu den ekimena iragartzen duen kartela argitaratu dute. Jon Gaztañaga artista tolosarra izan da 37. edizioako kartela sortzearen ardura-duna. «Abesbatzetako musikaren aurrean sentitzen dudana azaleratu nahi izan dut kartelaren bitartez»; horrela azaldu zuen artista gazteak bere lanaren edukia. Kartelaren ardura eman artean, en-

tzun gabe zituen Gaztañagak doinu horiek; hori dela eta, «danean nengoenan musika ipintzen nuen, inspirazio iturri bezala». Bi kolore dira nagusi, urdina eta beltza; lehenengoa «ni naiz», eta, bigarrena «musika da, nire barnean sartzerakoa».

Atzo aurkeztu zuten aipatu kartela prentsaurrekoan Donostiako Eusko Jaurlaritzako egoitzan. Bertan izan ziren kartelaren egile Jon Gaztañaga, Tolosako alkate Jokin Bildarraz, CIT-ko lehendakari Ana Arretxe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Imanol Agote eta Eusko Jaurlaritzako kultur ordezkari Gurutz Jauregi. Gauean, berriz, herri-

tar guztien aurrean egin zuten aurkezpena, Tolosako Txinpar-ta elkartean.

37. aldiz

Aurten 37. urtea beteko du Abesbatzen Lehiaketak eta urriaren 28tik azaroaren 1era bitarte izango da, inauguratu berri duten Usabal kirolgunean. Antolatzaileen esanetan, «Usabalek ez du arazo akustikorik izango, eta Leidor bezain egokia izango da». Kokapena ere ez dute arazotzat hartzen, izan ere, «ikusle eta taldeak bertaraino gerturatzeko autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte lehiaketak irauten duen

Leidor, 2. fasean

Leidorreko eszenatokia itxita mantenduko da aurten Abesbatza Lehiaketarako, izan ere, bere berritze lanek aurrera darraite. Urriaren erdialdean ekingo diote bigarren faseari eta Tolosako alkateak esan duenez, gainera, ekainaren 18rako prest izango da aretoa, Abesbatzen Europako Sari Nagusia jasotzeko, hain zuzen ere.

Bi milioi euroko aurrekontua izango du bigarren fase horrek eta Ibarгойen eta Balzola enpresek eramango dute aurrera. Guztiz eraberrituko dute aretoa, espazioa soilik mantenduz. Garrantzia handiagoa emango zaie antzezlanei musika ekitaldiei eta abesbatzei zinema emaldiei baino. Horrela, eszenatokia zabalduko dute, eta eserlekuak murriztuko, 880 geratuko direlarik. Honekin batera, aretora sartzeko eskilera kopuruak ere gutxituko dituzte, lehen hiru baziren orain bi izango direlarik. Bi aire girotze sistema izango ditu, ohiko berokuntza batek, eta aire girotua, bestetik. «Teknologia guztia areto egokiena lortzeko». ◀

AKUSTIKA

«Usabalek ez du arazo akustikorik izango eta Leidor aretoa bezain egokia izango da», antolatzaileek diotenez

bitartean». Inaugurazio kontzertua, berriz, San Frantzisko elizan egingo dute. Besteak beste, Bielorrusia, Alemania, Letonia, Suedia, Polonia, Danimarka, Txekia, Hungaria, Suitza, Norvegia, Belgika eta Zelanda Berritik datozen taldeek hartuko dute parte 37. Abesbatza Lehiaketan.

GUTUN@K ▶

Larunbatean denok Bilbora

Orain herria orain bakea, eskubide zibil eta politikoen alde. Goiburu horiekin irten-go da larunbat arratsaldean Bilboko manifestazioa eta lelo horiekin bat egiten duten eragile eta herritarrak manifestazioan parte har dezaten animatu nahi ditugu.

Izan ere, oso une garrantzitsua bizitzen ari gara Euskal Herrian. Demokrazia eta konponbidearen aldeko nahia gorpuzten ari dela dirudi eta ezin dugu auzia politikari profesionalen esku soilik utzi. Herritarrok parte aktibo izateko garaiak dira egun bizi ditugunak. Ezin dugu ikusle soil moduan geratu. Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeak aukera gauzatu behar duelako.

Autodeterminazioa eskubidea oinarri izango duen herri librea lortu nahi dugulako. Euskal Herrian sufritzen dugun jazarpen politikoa eta judizialari erantzuteko. Bakea nahi dugula, konponbidea nahi dugula, herriaren hitza errespetatzea nahi dugula esatea nahikoa ez delako. Hau guztia lortzea denon ardura delako. Larunbatean denok Bilbora!

BATUSUNA ▶ TOLOSA

KIROLA ▶

Bi ikastaro berri, Usabalgo eskaintzan

ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegiak bere eskaintza zabaldu du, bi ikastaro berrirekin: 3. adinekoentzako soinketa astearte eta ostegunetan 11:00etatik 12:00etara eta 12 eta 16 urte arteko gazteentzako aerobika, astearte eta ostegunetan, 18:30etik, 19:30era.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. HITZA egunkarian argitaratutako zorion agurrak Internet-en ikusteko aukera duzu. Zoriondu zure senitartekoa edo laguna eta sarean ere ikusi ahal izango duzu zorion agur hori.

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Deitu 675 70 11 78 zenbakira.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria eta kamarera behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

Neska. Neska eskaintzen da arratsaldean lan egiteko. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

telefono zenbakietara: 606 861 881 edo 943 65 09 73.

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira (arratsaldetan).

Lanparak. Bi lanpara rustiko salgai. Deitu 619 084 343ra.

Autoa. Renault Espace. 2.2 dtrxe salgai. Interesatuak deitu 605 732 155 zenbakira. Full equipu.

ZIZURKIL ▶ KULTURA



Jon Unanue liburuxkaren aurkezpena egiten Zizurkilgo San Miguel ermitan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eta Zizurkilgo Udalak Miguel Otegi (1911-1989) josulagun zizurkildarrari buruzko liburuxka argitaratu dute. *Lekukotzak* bildumaren bosgarren zenbakia da argitalpena. Herenegun arratsaldean, San Miguel Egunean, aurkeztu zuten liburuxka. Otegi jaio zeneko auzoan dagoen San Miguel basilikan. Hain justu, Otegiaren urtebetze egunean. Manuel Larramendi Kultur Bazkunako lehendakari Jon Unanue, Zizurkilgo alkate Marian Lazkano eta Kultur Bazkunako Zizurkilgo ordezkari Joxin Azkue izan ziren aurkezpenen.

Txinako zizurkildarra dio izenburupean Otegi buruzko liburuxkak. Arrazoia erraza da: josulagun zizurkildarrak bere bizitzaren zati nagusia Txinan eman zuen, misolari moduan. Egoera latzak pasatu behar izan zituen, Mao-k gidatutako iraultzak bete-betean harriaratu baitzuen. Baina, Miguel Otegi hizkuntzalaritzaren arloagatik da ezaguna. Beste bi josulagunekin batera —Aita Arrizabalaga eta Aita Mateos— gaztelania-txinera hiztegia osatu zuten. Hiztegia oso ga-

Txinara joandako zizurkildarra

Miguel Otegi josulagun misiolariari buruzko liburuxka argitaratu dute

rantsizua izan da, bera baita gaztelania hitz egiten duten herrialdeen eta Txinaren arteko harremanen oinarria.

Liburuxka hiru zatitan dago banatuta: Miguel Otegiaren biografia, josulagunen misio lana Txinan —Nerea Azurmendi kazetariak idatzita— eta txinera hizkuntzari egindako hurbilketak —Rafael Egiguren idazle eta itzultzailearen esku-tik—.



Miguel Otegi. 'LEKUKOTZAK' LIBURUA

ARAMBURU
 Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m². Bista zoragarriak.
 Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibilokian, Bista zoragarriak, sartzeko moduan.
 Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokian
 Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan, Guztin bertua, 244,000 euro
 Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskon, 126m². Garajearekin.
 Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Baxiller Zakibitia kalean, Plaza zaharra...
 Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
 Alokatzeko (Tolosa). Garajea P. de Tolosa kalean, Araba Elorbidetan, B. Zakibitia-Igarondot.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)			
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Planoen interpretazioa	50	2005-10-17	18-21
Fabrikazio-prozesuak	60	2005-10-17	18-21
Lengoian egituratueta oinarriko malako programazio alkatzea (Visual basic)	70	2005-10-24	18-21
Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80	2005-10-24	18-21
Analisi kontablea	85	2005-11-02	18-21
CNC sarpin bidezko elektroigaduraren prestaketa eta programatzea	30	2005-11-07	18-21
Motor elektrikoaren abiadura-erregulazioa (Bariadoreak)	40	2005-11-07	18-21
Datu-Baseak administratzea (Access-hastapena eta aurreratua)	80	2005-11-21	18-21
Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18-21
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18-21

ESKAINAZA OSOA: ikastetxean edo web orrian

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47- Santa luzia, 17 - 20400 TOLOSA
 E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com Web: www.tolosaldea.com

BALIARRAIN ▶

Udalak Markina eta Lekeitiora bidaia antolatu du

Baliarraingo Udalak hilaren 16rako bidaia antolatu du Markina eta Lekeitiora. Simon Bolibarren museoa bisita gidatua egingo dute; ondoren Zenarruzako kolegiatara bisita gidatua eta Markinan bazkaria. Arratsaldean Lekeitiora bisita gidatua izango dute. Guztira 23 euro balio ditu bidaia. Udaletik etzi, astelehena, deituko du etxeetara, interesatuta dauden herritarrek izena eman ahal izateko.

IBARRA ▶

Ibarra bere lehen hiru puntuen bila Errioxara

Ibarra areto futbol taldeak gaur izango du denboraldiko bigarren partida. Errioxara egingo du bidaia, Arnedo FS Calzados Himalaya taldearen aurka jokatzeko. Norgehiagoka 19:30ean hasiko da. Hiru puntuak beharrezkoak baditu ere, ez du partida erraza izango Ibararako taldeak, Arnedokoek indar handiz jokatzeko baitute beren etxean. Afizioak, gainera, iskanbila handia sortu ohi du bere taldea animatzerakoan.

TOLOSA ▶

San Esteban pilota elkartean jaia

San Esteban pilota elkartek gaur ospatuko du bere festa. 19:00etan bazkide hildakoen omenezko meza egingo dute Sakramentinoetan. Ondoren afaria egingo dute elkartean, eta, tartean urtean zehar jubilatzen direnen omenaldia. Ramon Egiguren *Txitxan*-ek omenaldi berezia jasoko du 22 urtetan elkarteko pilota entrenatzaile eta ordezkari gisa egindako lanagatik.

BELAUNTZA ▶

Pilota eskolako klaseak gaur hasiko dira

Gaur hasiko dira pilota eskolako klaseak Belauntzan. Larunbatero 10:30etik 12:30era izango dira. Animatzen direnak herriko frontoira agertu besterik ez dute egin behar.

IBARRA ▶

Ikastaroak datorren astean hasiko dira

Belabieta kiroldegian egingo diren aerobik, mantenu fisikoa, gimnastika, yoga, spinning eta pilates ikastaroak datorren astean hasiko dira. Izen-ematea 943 67 15 44 telefono zenbakian.

UPELERA TOLOSALDEAN
 ADUNAN • URRIAK 7-8-9
 TOLOSALDEKO Sagardo Festaren ARTIFIZIA
 OSTIALEK, LARUNBATA ETA IGANDEA 10:00an
 Sagardo dastaketa
 Herri kirolak
 Uneentzako puzgarriak
 Bertso bazkaria
 Kontzertuak
 Herri afaria
 Jai giroa
 Azoka
 Argazki erakusketa

Teléfonoa: 943 65 74 13
 www.tolosaldea.net

REGISTRATEGIAK
 TALDEAN: 10.000.000
 INDIBIDUAL: 15.000.000
 BARRUTIA: 10.000.000
 HIRIA: 10.000.000
 ESTADISTIKA: 10.000.000
 BARRUTIA: 10.000.000
 HIRIA: 10.000.000

TOLOSALDEA

II. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Baditugu irabazleak

Txema Zabala tolosarra, Aintzane Artola tolosarra eta Juanjo Esnaola anoetarra dira saridunak



Txema Zabalak Pirinioetan ateratako argazkiarekin lortu du lehenengo saria.

ERREDAKZIOA

Iritsi da, azkenean, II. Hitza Argazki Lehiaketako hiru irabazleak jakiteko unea. Irakurleak izan dira azkeneko erabakia hartu dutenak, eta bai telefonoz bai posta elektronikoz, berairantzako argazki onena denari eman dizkiote botoak. Txema Zabala tolosarra izan da, Pirinioetan ateratako argazkiarekin, irakurleengandik boto gehien jaso dituen. Berarentzako izango da, beraz, lehen saria: bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan. Bigarrena gelditu dena ere tolosarra da, Aintzane Artola. Abaltzisketan ateratako argazkiarekin lortu du saria: Leitzako Arakindegia jatetxean bi lagunentzako afari ederra. Boto gehien lortu dituen hirugarrena Juanjo Esnaola anoetarra izan da.

Zarauzko hondartzatik Getaria harrapatu zuen bere kamaran, eguzkiaren agurra jasotzen ari zela. Berarentzako izango da Tolosako Richard argazki dendak emandako 8x21 prisma-koak.

Baina ez dira hiru hauek izango sariak jasoko dituzten bakarrak. Lehiaketara argazkiak bidali dituzten artean HITZAKO kamiseta bat oparitu da eta zozketa egin ondoren Zuriñe Arsuagari egokitu zaio. Indiarra joan da uda honetan lizartzarra. Bestalde, botoak eman dituzten artean ere egin da zozketa. Maite Artola tolosarrari suertatu zaio oparia, HITZAKO kamiseta ere kasu honetan. Bai argazkilari irabazleekin, bai oparia jasoko dutenekin harremanetan jarriko da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.



Aintzane Artolak Abaltzisketan egindako argazkiarekin —ezkerrean— jaso du bigarren saria; Juanjo Esnaola da hirugarren sariaren jabea, Getariari ateratako argazkiarekin.



hitza

txokoa

lagunen

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

IKAZTEGIETA ▶ EKONOMIA



Kutturrun industrialde berria Beltzuntzibar gune zaharraren parean kokatzen da. MARTA SAN SEBASTIAN

Kutturrun industrialde berriko enpresak ekainean hasiko dira

15 modulu eraiki dira gune berrian eta, oraingoz, Talleres Gara SA eta Jaure SA enpresak hasiko dira jardunean

MARTA SAN SEBASTIAN

Ikaztegieta industrialde berriaren eraikuntza lanak amaitu dituzte jadanik. Kutturrun izena aukeratu dute bigarren gune horrentzat, eta Beltzuntzibar industrialde zaharraren parean kokatzen da. Enpresentzat 15 modulu eraiki dituzte eta, oraingoz, modulo guztiak saldu dira, bakar bat izan ezik.

Bi neurritako industria lokalak eraiki nahi izan ditu Construcciones Aburuza promotoreak Ikaztegieta industrialde gunean. Batetik, 500m2ko-ak daude eta, bestetik, handiagoak ere badira, 623m2-koak. Denara, beraz, 15 modulu.

Orain arteko datuen arabera, Talleres Gara SA enpresak 6 modulu erosi ditu bere jardunerako eta Jaure SA enpresak, aldiz, modulu bat. Beste zazpi moduluen nagusiek biltegi moduan erabiltzeko asmoa dutela argitu dute, jarduera baimenik eskatu beharrik gabe. Talleres

Gara SA eta Jaure SA enpresak, aldiz, orain ari dira Ikaztegieta-ko Udalean jardura baimena bideratzen. Baimen horren esperoan, biltegi moduan ariko diren enpresak hasi dira dagoneko lanean.

Industria lokalez gain, Kutturrun-ek industriagunea osatzen duten 74 autorentzat apartokalekua ere badu. Horrez gain, Construcciones Aburuza promotoreak 1400m2 utzi ditu espazio librerako, eta oinezkoentzat eta autoentzat egokitu diren kaleek, ordea, 4.000m2 osatzen dituzte.

Kutturrun baino lehen

Ikaztegieta bere industria jardura bultzatzeko bidean jarri da Kutturrun industrialdea sustatuz. Bide horretan, Beltzuntzibar gune zaharrarekin bat eginez, neurri handiko konplexu industrialera eratu dute. Lehen, aldiz, lursail horiek landa gune ziren, jabe pribatue-

nak. Ikaztegieta Udalak lursail urbano bihurtu zituen industria jardunerara bideratzeko asmoarekin. 1996an jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarren baiezkoa. Ordurako, Kutturrun Ikaztegieta Udalarren asmoetako bat zen.

Enpresen etorrera

Talleres Gara SA da Kutturrunen egoitza hartu duen enpresetako bat. Egun Alegian kokatzen da eta tailer mekanikoa da. 20 langile eramango ditu Ikaztegieta tailerrea lan egiteko eta bost lagun bulegoetan jarduteko. Bestalde, Jaure SA enpresak modulu bat erosi du bere beharren hasteko: akoplamentuen eta transmisio elementuen akoplazio eta diseinua egingo du bertan. Gai-nontzeko enpresek biltegi moduan erabiliko dituzte lokalak eta, esan bezala, azken modulu bat geratzen da oraindik saltzeko.

Ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- 1 Ipuin harrigarriak 1 Kastillopranko Biribil-biribilak
- 2 Ipuin harrigarriak 2 Dar-dar Ondo eginarene ordaina
- 3 Ipuin harrigarriak 3 Gatza ala erregea Biziak ezagutzeko hila
- 4 Ipuin harrigarriak 4 Zapatarri asmatzailea Zerraldoan bizirik
- 5 Ipuin harrigarriak 5 Ikazkina eta heriotza Besterik ez bezalako kapela
- 6 Ipuin harrigarriak 6 Estudiante Tonto Ezkonberriak
- 7 Ipuin harrigarriak 7 Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki Zeruko berriak
- 8 Ipuin harrigarriak 8 Pepetxu eta Popatxu Kardulatzeta salatari

Urriaren 8tik aurrera
ASTEBURUETAN

berria

+ 3 €

Laguntzaileak:

Eipuzkoako Foru Aldundia

Bizkaia

Banatzailer bat
behar da baserritar
produktuak banatzeko

Lurlan baserritar elkarteak
943 69 20 54

Joxean

- iturgintza
- aire egokitua
- inst. industriak
- berokuntza
- gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue
irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808

GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Ibarrako Alurr dantza taldearen inguruan

Alurr dantza taldearen urtemuga ospatzeko idatzi bat egiteko eskatu zidaten eta ez daukat oso argi zer idatzi. Zer esan Alurri buruz? Hainbeste sentimendu sortzen dizkit. Nire 24 urte hauek ezin izango nituzke

ulertu tartean Alurren pasatakoak kontuan izan gabe.

Txikitan hasi nintzen dantzara hurbiltzen eta nahigabe nire egin nuen dantza. Bizi egiten nuen eta bizi egiten dut egun. Gustuko dut dantzan aritzea eta baita dantza erakustea ere. Baina niretzat Alurr ez da soilik dantza talde bat izan. Alurr dantzaren inguruan bildutako lagun zoragarrien topaleku bat izan da. Pertsona bezala hezi

eta aurrera egiten lagundu digun lagun taldea. Horixe izan du berezia Alurr-ek, bera osatzen duten pertsonak, eta horixe ere nik gogoan gordetzen dudana altxorra. Beraiekin igarotako une zoragarri guztiak.

Ezinezkoa litzateke lagun horiek guztiak aipatzea, baina batzuk ezin ditut aipatu gabe utzi, Alurr-en eta nire bizitzan izan duten garrantziagatik. Adibidez zu, Jose Luis. Alurr-en sor-

tzailea izendatu zaitugun arren, hori baino gehiago zara. Zuk sartu zenuen dantzarako grina guregan; zuk erakutsi zenuen dantzarakin bizitzen; zuk jarri gintuzun aurrerago dantza erakusten.

Zu gabe, agian, Ibarrek ez luke dantzaren majia ezagutuko, eta gu zu bezalako pertsona bat ezagutu gabe geratuko ginateke.

EIDER IJURKO ▶ IBARRA

IBARRA ▶ KULTURA

Alurr-en Kultur Astea, etzitik aurrera

Argazkien eta tresnen erakusketa, proiektzioak eta emanaldiak izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Historia luzeagoa badu ere, formalki 10 urte beteko ditu aurren Ibarako Alurr dantza taldeak, eta hori dela-eta datoren astelehenetik larunbatera Kultur Astea egingo dute.

Aste osoan zehar, 1974. urte-tik hasita, dantza taldearen argazkiak ikusi ahaliko dira, ibilbidearen proiektzioa ikusteko aukera izango da, eta euskal tresnen erakusketa jarriko dute Jon Garmendia musikari ibartarrak azalduko duelarik. Larunbata izango da egun bereziarena, dantza saioekin eta omenaldiekin osaturiko jaialdia izango baita. Alurr-ek hainbat etapa izan ditu bere historian zehar, eta horietan oso esanguratsuak izan diren pertsonaia izango dituzte gogoan jaialdian, bereziki dantza taldearen sortzaile eta bultzatzaileetakoa izan zen Jose Luis Zubeldia.

Beraz, Ibarren «dantzarako grina piztu» duen taldearen hastapenak nola izan ziren eta

urteetan gaur egunera arte izan dituen eboluzioen berri izango da Kultur Astea.

Dantza taldea baino gehiago

Urteurreneko astea antolatzen denbora luzez aritu dira burubelarri dantza taldekoak. Horien artean Eli Nosellas Alurrieko arduraduna aipatu behar. «Egun, gaztetxoenetatik helduetaraino bitartean 230 dantzari osatua dago taldea, beraz, urtetik urtera gorantz dihoa kopurua, eta oso pozik gaude», dio; bestalde, «herriak asko laguntzen du, itzaltzen ez den kandela bat dela esan genezake», gehitzen du. Ardura-dunak azaldu duenez, azpimarragarria da taldeko gazteek duten konpromisoa.

Laguntza eskaini dutenen artean dago Eider Epelde; berak dioenez, «dantza gain, herriko jendearekin erlaziozatzeko aukera ematen du taldeak». Josune Ezeizak dioenez, «dantza zuretzako zer garrantzi duen konturatzen zara denbo-



Alurr dantza taldeko kideak Kultur Astea antolatzen. I. TERRADILLOS

KULTUR ASTEA ▶

EGITARRAUA

Etzi, astelehena. Argazki erakusketa zabalduko da Kultur Etxean. Aste osoan egongo da irekita.

Asteartea eta asteazkena. 10 urteko ibilbidearen proiektzioa Kultur Etxean. 18:00etatik 19:30era eta 19:30etik 21:00etara.

Ostirala. 20:00etan Kultur Etxean, euskal tresnen erakusketa Jon Garmendiaren eskutik.

Larunbata. 11:00etan plazatik kalejiran abiatuko dira Altxoko eta dantza eskolako gazteboak, Euskal Herria kalean, Emeterio Arresen eta plazan dantza saioak eskainiko dituztelarik (eguraldi txarra egiten badu pilotalekuan). Nahi duenak hartuko du parte. 20:00etan Belabietan 10. urteurreneko jaialdi berezia izango da.

ra batean etorri gabe egon zarenean eta niri hori gertatu zait». Josune Agirre, berriz, duela 10 urte hasi zen Ibarren bizitzen eta ordutik Alurr-en ari da, «garai txarretatik eta oparagoetatik igaro naiz; tartean urtebete egon nintzen dantzatu gabe eta nahiko gaizki igaro nuen», dio. Halaber, gainerako kideek ere errepikatu egiten dute dantza talde bat baino gehiago dela esatean; herriko talde bat, lagun talde bat dela diote, konpromiso handia dutela, baina askatasunean aritzeko aukera ere ematen duela.

Guztiak ere eskerrak eman nahi dizkie Kultur Astea antolatzen lagundu dutenei, bereziki musikariei, Kultur Etxeari eta materialarekin lagundu dutenei eta animatzen dituzte herri-tarrak ekitaldietan parte hartzera. Gogorarazi nahi dute, gainera, abenduan dantza taldearen liburuaren aurkezpena egiteko asmoa dutela.

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonora.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoeta. Astelehenetik

ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Laborategiak. Plaza libreak.

Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

IBARRA ▶

3 urte beteko dira gaur Jon Mindegiaga atxilotu zutela

I. TERRADILLOS

Gaur beteko dira hiru urte Jon Mindegiaga atxilotu zutenetik, eta oraindik epaiketa egitearen esperoan dago Alcala Meco espetxean.

Jaso ahal ditzakeen bisiten inguruan, hamar laguneko zerrenda baino ez duela salatu dute senitartekoek eta lagunak, eta horiez gain ezin du inor gehiago ikusi. «Gainera, asteburuan izan ordez, astegunetan baino ez du familiak ikusteko aukera, horrek sortzen dituen arazoekin», azaldu dute. Halaber, unibertsitate ikasketekin aurrera egiteko izan dituen zailtasunak ere salatu nahi izan dituzte.

Bestalde, urriaren 12an izango den Elkartasun Egunean ibartarrari omenaldi txiki bat eskainiko diotela azaldu dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

ARESO ▶

Diru sarrera polita izan da uso postuen enkantekoa

Iaz baino gutxiago baina antzera ibili dira, 9 postu sexteatu gabe gelditu arren

J. ASTIBIA

Areson burutu dute jada bertako 27 uso-posturen enkan-tea. Hain justu, gaur zortzi egin zuten enkanteko bigarren eta azken saioa eta behin betikoz gehien eskaini zutenentzat esleituta gelditu ziren, uso zein birigarro ehi-zarako omen diren postu horiek. Aurtengo saioa balorazioa egin dute Udalean.

Iaz bezala, aurten ere 27 ehiza postu atera zituzten enkantera, jakina denez. Orotara, «hogeita hamahiru mila eta hirurehun euro jaso ditu Udalak», bertatik aditzera eman dutenez, «lehenengo urtean baino lau mila bat euro gutxiago», zehaztu zuten. Iaz, 37.263 euro jaso zituzten.

Hala ere, «emaitza polita» izan dela baieztatu zuten, «27tik 9 postu sexteatu gabe gelditu ziren, iaz prezio polita egin zutenak tartean, eta erreparoa bagenuen», argituz batera. Alde horretatik enkan-te «berezi samarra» izan zela aitatu zuten: «Esaterako 'laua', 3.576 eurotan esleitu da, garestiena hori izan da; aldiz, 'hamazazpia' irteera prezioan, 72 eurotan. Bi postuen kalitatearen alde, ordea, ez da hainbesteakoa», zioten harritu samar.

Baina, «hala ere, ikusiak ikusi» balorazio ona egin zuten, «gurea bezalako herri tiki batentzat oso baliagarri eta beharrezko da diru sarra hau. Udalaren aurrekontuetarako diru sarrearik garrantzitsuenetakoa baita», argudiatuz.

LEITZA ▶ KIROLAK

Igantzia, sari bila doa Beñat Saralegi

Nafarroako Aizkolari Gazteen II. San Miguel Sarian jokatu du leitzarrak



Iaz, Nafarroako Gazteen Txapelketa irabazi zuen Saralegik. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Beñat Saralegi leitzarrak gaur Igantzin jokatu du Nafarroako Aizkolari Gazteen II. San Miguel sarian jokatu du. Kirol jaialdia, 19:00etatik aurrera, bertako pilotalekuan izan da.

16 urte besterik ez ditu Saralegi gazteak eta bere tankerako beste bost aizkolari gazterekin lehiatu du, txapelaren bila: Garikoitz Larretxea, Julen Kañamare, Oihan Larretxea, Joseba Jimenez eta Alejandro Mindegia izan ditu lehiakide. Egin beharreko lana, berriz, hiruna 45 ontzako ebakitzea izan dute. Ez da lan luzea, bereziki, bestelako ekitaldietan ere egiten dute holakorik, baina aizkorako trebeziak hainako eragina izan lezake kasu honetan aizkolari bakoitzaren urduritasunak, gazteak izaki, plazan

aritzeak beti eragiten baitu. Hala ere, Saralegi gaztea lasai antzean zegoen atzo, HITZA berarekin egon zenean. «Bihar-koa gogor samarra izan da, aurkari indartsuak daude hor», zioen berak. Txapelaren jabe izateko lehian, bere ustez «Larretxea, Garikoitz, eta Kañamare ere indartsu dabil aurten», aitatu zituen. Berak eginahalak egingen ditu, «gu gure lana egitera joan gara», zioen umil.

Aitatzekoa da iaz, 16 urtez behikoen Nafarroako Txapelketa berak irabazi zuela —aurten ez du parte hartu— eta gaurko sariak honetan berean, 2. egin zuela.

A din honetako aizkolariak ikusteko aukera urtean bitan izaten da, bat Sanferminetan, eta bestea gaurkoa: hortxetik helduko dira, besteak beste, etorkizuneko aizkolariak.

LEITZA ▶ KIROLAK

Zaldiz ibiltzen direnen elkarretaratzea gaur

Arratsaldeko hirurak inguruan, 50-60 zaldunek zeharkatu dute herria

J. ASTIBIA

Ikusgarria izan da, ziur. Gaur arratsaldeko lehendabiziko orduan, 15:00ak aldera, «50 edo 60 zaldizko igaroko dira herrian behetik gora», halaxe eman zioten jakitera egunkari honi.

Izan ere, gaur dute egitekoa, zaldiz ibiltzen direnen elkarretaratzea gurean. Goizean, 09:00etan Inguruarten elkar-tu eta mendiz ibilaldia egitera joan dira: Inguruartetik hasi eta Arretxene, Guratz, Uztziko gaina, Berutako mendia, Kornietea, Behordain, Putzenborda, Santakruz, Ziraten barrera, Maimurren aterako

omen dira errepidera. Eta herri guztia zeharkatu, abiapuntura itzuli. Hori, lehen aipatutako ordurako egiteko asmoa dute.

Iaz egin zuten aurreneko aldiz horrelako elkarretaratzea hemen. Aurten berriz: bertako zaldunen bidez, Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat gonbidatu, zalditegiak edo norbanakoak, eta gutzira, 50-60 dira etortzekoak, herrialde guztietatik. Bertakoak ere, noski, mordsoka badira, «dozena bat edo bai», aitaten zuten.

Mendi ibilaldiaren ondoren bazkaria egingen dute, Mendi Gorria elkar-tean.

ARESO ▶ GIZARTEA

Aresoko botika ere zaintzako txandetan

Loidi etxean ireki berri samar dute; heldu den astean berari dagokio zaintza egitea

J. ASTIBIA

Areson, Loidi etxean ireki berri duten botika ere Leitzakoe-kin batera, zaintza-txandak egiten hasiko dela eman dute aditzera, horrela, bosgarrena erantsiz. Besteetara bezala, beraz, aurrenartzean honi egokitzen zaizkion txandetan, urgentziako zerbitzua behar izatekotan betiere, honera etorri beharko da, aurrez SOS-Nafarroako 112 telefono zenbakira deitu ondoren. Hurrengo astean du egitekoa bere lehen txanda.



Loidin, alde batean du atea. J. A.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 1a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

14

BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (Zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. EHNaren tramitazioa egingo dute 18:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, 11:00etatik 13:00etara.
Belauntza. Pilota eskolako klaseen hasiera. Larunbat guztietan izango dira, 10:30etik 12:30era, herriko frontoian. Deialdia irekia da parte hartu nahi duten guztientzat.
Irura. EHNaren tramitazioa egingo dute 17:00etatik 19:00etara.
Tolosa. Gerontologiakoaren Aldeko Plataformak berriz ere ekingo die, uda ostean, asteroko bilereki eta horietako lehena asteartean izango da, 19:30ean Kultur Etxean, Tolosako Gerontologia itxi zutenetik gaurdaino, egoera berriaren berri emateko.
Tolosa. Bertsolari Txapelketa Nagusiaren harira, kale animazioa antolatuko dute: 11:30ak aldera antzerki ikuskizuna San Frantzisko ibiltokian.
Tolosa. Lizardi kultur elkarteak Euskal Herriko 19. Gazta Lehiaketa antolatuko du Beotibar pilotalekuan.

JAIK

Irura. Haur parkea 11:00etan; xare eta pala partidak 12:00etan; ezkonduen dantza-soka 13:30ean; apar festa 14:00etan; ezkonduen bazkaria 14:30ean; haur parkea 16:30ean; herri kirolak haurrentzat 17:30ean; acroquad ikuskizuna 19:30ean; Mal de ojo taldearen kontzertua 23:30ean...

MUSIKA

Tolosa. Surfin Kaos eta Panics taldeen kontzertua, Bonberenean, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Goiko irratia, 107 FM
13:00. *Kornerra* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lehiaketako erakusleihoak

TOLOSA ▶ HITZAko argazki lehiaketara bidalitako argazkiak ikusgai daude Tolosako Alde Zaharreko erakusleihoen aurreko paneletan



Tolosako Alde Zaharrean erakuslehoi batean parean Hitzako argazki lehiaketako bi argazki ikusgai. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

HITZA Argazki Lehiaketara bidalitako argazkiak ikusgai daude Tolosako Alde zaharrean. Dendetako erakuslehoien parean jarritako panel batzuetan ikus daitezke; bizpahiru argazki daude panel bakoitzeko. Horrela, HITZAko irakurleek oporretan atera dituzten argazkiak egunkarian ikusteko paradarik izan ez zutenek, ikusteko aukera bikaina ere badute proiektu honen. Merkatari Elkarteok

izan zuten proiektu honen ideia; argazki lehiaketa bat egiteko asmoa zuten, baina, HITZArena jadanik abian zegoenez, euren erakuslehoiak eta kaleak apaintzeko, eskualdeko egunkariaren lehiaketara bidalitako argazkiak jartzea otu zitzaion.

Harridura eta ilusioa

Kaleko jendearen artean harridura, eta, aldi berean, ilusioa ageri dira argazkiak ikusitakoan. Harridura, horrelakorik

oraindik egiteko zegoelako; ilusioa, ostera, jendeari zuk oporretan atera duzun argazkia zein den esateko parada eskaintzen duelako.

Aurtengo udan HITZAko irakurleek mundu osoko txokoak bisitatzeke aukera izan dute; Euskal Herriko hainbat tokitako argazkiak jasotzeaz gain, munduko beste puntako argazkiak ere jaso baitira, hala nola Indiakoak, Indonesiakoak, Brasilekoak... eta baita beste hainbat herrialdekoak ere. Euskal Herriaren kasuan, berriz,

zazpi lurralde historikoetako adibideak jaso dituzte irakurleek beren kamaretan. Leku horietako guztietako paisaiek dituzten kolore anitzak jendearen erretratuekin uztartu dira aurtengo lehiaketan; guztiak ere, paregabeak.

Dagoeneko udazkeneko giroan sartu bagara ere, erakuslehoi honenkin, udako oroitzapenak freskatzeko aukera izango da. Dudarik ez dago, behintzat, argazki hauekin guztiekin Tolosako kaleak ederki apaindu daudela.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Amaiur (Alegia).
Gaur 3 urte.
Zorionak eta ondo pasatu.



URTE ASKOAN
Ion Ander Ormazabal. Gaur 17 urte.
Zorionak eta muxu handi bat amaboi eta Imanolen partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!